

PRESIDENTEA  
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALAK 2016ko IRAILAREN 22an  
EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo  
José Antonio Bartolomé  
Montse Angulo  
Susana Martín  
Josu Artetxe  
Lauren Uria  
Ester Hernando  
Nerea Goti  
Iraida Saenz de Lafuente  
Iratxe Parro

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hamaseiko irailaren hogeita bii, hemeretziak direnean, Udaltza Osoa bildu da ohiko bilera egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak ongiatorria eman die osoko bilkurako guztiei, eta besterik aipatu gabe eguneko aztergaien zerrendako gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira:

**1º.- Onestea, bidezkoa bada, 2016ko ekainaren 29an eginiko ezohiko osoko bilkuraren akta.**

Josu jaunak (BILDU) aipatu du ikusi duela akta batzuetan ez dela behar bezala jasotzen gauzen espiritua.

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, Udaltzako kideek aho batez onetsi dute akta (Iratxe Parro andreak izan ezik; izan ere, ez zen egon aipatu bilkuran eta oraindik ez du zinegotzi kargua hartu).

**2º.- Onestea, bidezkoa bada, 2016ko uztailaren 18an eginiko ezohiko osoko bilkuraren akta.**

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, Udaltzako kideek aho batez onetsi dute akta (Iratxe Parro andreak izan ezik; izan ere, ez zen egon aipatu bilkuran eta oraindik ez du zinegotzi kargua hartu).

**3º.- Onestea, bidezkoa bada, 2016ko uztailaren 21ean eginiko ohiko osoko bilkuraren akta.**

Iraida andreak (AB) esan du Mandela Arauei buruzko puntuan berak egin zituen adierazpenak falta direla. Adierazi du Aiara Batuz taldeak gainerako taldeko kideek adierazten dituzten iritzia errespetatzen dituela, eta gainerakoek haien ideiak eta iruzkinak errespetatzea gustatuko litzaiokeela. Esan du bere taldeak premiazotasuna onartzen duela hala eskatzen denean, era guztietako mozioak eztabaidatu ahal izan daitezen, baina ez dutela udal-esparrua gaitzen dituzten gaien buruzko iritzirik ematen.

Nerea andreak (BILDU) azaldu du Mandela Arauak eztabaidatu zituztenean berak adierazi nahi izan zuena zela ez zuela ulertzen zergatik abstenitzen zen Aiara Batuz taldea; izan ere, herrien alde borrokatzea herritarren eskubide zibil eta politikoen alde borrokatzea ere bada, eta hori eztabaidatzen zen mozio horren bitartez.

Esteban jaunak (BILDU) esan du Eskaerak eta Galderak puntuan (11. puntua) berak honako hau esan zuela: maiatzean gai honi buruz galdetu genion gobernu-taldeari, eta erantzun ziguten ez zekitela hori gauzatzen ari ote zen. Ekainean (eta ez uztailan), espedienteak ikusteko eskatu zen.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) gehitu du zinegotzi guztiek ikus ditzaketela Udaleko espediente guztiak, nahiz eta espedienteak aurkitzeko denbora gehiago edo gutxiago behar izan, artxiboan dauden ala ez kontuan hartuta. Hori dela eta, ez da egon espedienteak ezkutatzeko inolako asmorik, gainerako espedienteekin gertatzen den moduan; zinegotziak agiri guztiak azter ditzakete.

#### **4.- Onestea, bidezkoa bada, 2016ko uztailaren 28an eginiko ezohiko eta premiazko osoko bilkuraren akta.**

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute akta (Gentza Alamillo eta Josu Artetxe jaunek izan ezik, ez baitziren aipatu bilkuran egon, eta Iratxe Parro andreak salbu; izan ere, ez zen egon aipatu bilkuran eta oraindik ez du zinegotzi kargua hartu).

#### **5º.- Onestea, bidezkoa bada, 2016ko abuztuaren 29an eginiko ezohiko osoko bilkuraren akta.**

Horren inguruko beste adierazpenik egin ez denez, Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute akta (Gentza Alamillo, Iñigo Pinedo, Josu Artetxe eta Iraida Saenz de Lafuente jaun-andreak izan ezik, ez baitziren aipatu bilkuran egon, eta Iratxe Parro andreak salbu; izan ere, ez zen egon aipatu bilkuran eta oraindik ez du zinegotzi kargua hartu).

#### **6º.- Iratxe Parro Uzquianok Udalean zinegotzi-kargua hartzea, Aiara Batuz udal-taldeko kide gisa.**

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du eskerrak eman nahi dizkiola Xabier Artiñano jaunari, Udaleko zinegotzi gisa egindako lanarengatik, aurreko osoko bilkuran ez zuelako horretarako aukerarik izan. Horrez gain, Iratxe andreari ongietorria eman dio, eta parte hartzera animatu du.

Alkate jaunak, kargu-hartzea formalizatzeko, honako galdera hau irakurri dio Iratxe andreari:

“Zin dagizu edo agintzen duzu, zure kontzientziaren eta ohorearen izenean, zintzo beteko dituzula zinegotzi-karguaren betebeharrak, konstituzioa funtsezko arau gisa zainduz eta zainaraziz?”

Iratxe andreak (AB) hau erantzun du: "Legeak, hala behartuta, bai".

Hori bukatu ondoren, Iratxe Parro andreak Aiarako Udaleko zinegotzi-kargua hartu du, Aiara Batuz taldeko kide gisa. Une horretatik aurrera, zinegotzi hautetsi gisa jardun ahalko du.

Josu jaunak (BILDU) ere Udalbatzara ongietorria eman dio Iratxe andreari.

#### **7º.- Onestea, bidezkoa bada, 3/2016 zenbakiko Judizioz Kanpoko Kredituen Aitortza. 015 zenbakiko faktura, I. L. B. jaunarena. Zenbatekoa: 1.210 €.**

Ez da horren inguruko beste adierazpenik egin, eta Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute gaia.

Eta hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** 2/2016 zenbakiko judizior kanpo kredituak aitortzeko espedientea.

**IKUSI DA.-** Kontu-hartzaile eta idazkariak 2016ko irailaren 9an eginiko txostena.

**AINTZAT HARTU DA.-** Administrazio-batzarrekin erlazioa duen informazio-batzordearen 2016ko irailaren 13ko aldeko txostena.

**AINTZAT HARTU DA.-** Toki Ogasunen Lege Araztearen Testu Bategineko 176. artikulua eta 500/1990 Errege Dekretuko 16. artikulua (Toki Ogasunak arautzen dituen).

Udalbatza osoak, aho batez, hau **ERABAKI DU**:

**Lehenengoa.-** Onestea 3/2016 zenbakiko judizior kanpoko kredituak aitortzen dituen espedientea, jarraian zerrendatzen diren gastuen arabera:

- 015 zenbakiko faktura, 2015eko uztailaren 27koa, I. L. B.-k igorria. Zenbatekoa, 1.210 € (BEZa barne).

**Bigarrena.-** Aipatutako kredituen aitortza 2016 ekitaldiko aurrekontuari egoztea, 920.270.020 zenbakiko aurrekontu-aplikazioari, hain zuzen.

**8.- Udalbatza osoari berri ematea Aurrekontu Egonkortasuna ez betetzearen ondorioz organo kontu-hartzaileak egindako txostenaren, diruzaintzaren gerakinaren erabilerari buruzkoa.**

Udalbatza jakitun geratu da.

Eta hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** 2015 urteko likidazioak gastu-partidak sortzeko edo daudenak handitzeko, nahitaezkoak diren 2017. urteko aurrekontura itxaron ezin duten ordainketak egiteko, ateratako diruzaintzako gerakinaren zati bat gastu orokorrak ordaintzeko erabiltzeko beharra.

**IKUSI DA.-** 2016ko irailaren 16ko idazkariaren eta kontu-hartzailearen txostena, gastuak gastu orokorretarako diruzaintzaren gerakinaren bidez finantzatzean egonkortasuna ez betetzearen ondorioei buruzkoa, .

**AINTZAT HARTU DA.-** Abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauko 7.1 eta 7.3 artikulua, 17/2014 Foru Arauko emandako Aurrekontu eta Finantza Egonkortasunari buruzkoa.

Udalbatza Osoa organo kudeatzaileak 2016ko irailaren 16an emandako txostenaren jakitun geratu da, gastuak gastu orokorretarako diruzaintzaren gerakinaren bidez finantzatzean aurrekontu-egonkortasuna ez betetzearen ondorioei buruzkoa, .

**9.- Onestea, bidezkoa bada, 4/2016 bilkurako kreditu gehigarria.**

Gaiari buruz ez dute ezer aipatu, eta gaia aho batez onetsi dute bertaratutakoek.

Eta hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** Diruzaintzako soberakinaren zati bat erabili behar dela, Gastu Orokorrak atalekoa eta 2015eko likidazioak emandakoa. Xedea da gastuen partida bat sortzea ezinbesteko ordainketak ordaintzeko, eta ezin delako 2017ko aurrekontua egin arte itxaron.

**IKUSI DA.-** Kontu-hartzaileak eginiko txostena, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzeari buruzkoa, abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauan (17/2014 Foru Arauak Aldatzen duena) jasotakoari jarraituz (Arabako tokiko erakundeen aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzkoa). Txosten hori Udalbatzari erakutsi zaio kreditu aldaketa honekin batera.

**AINTZAT HARTU DA.-** Honako hauetan xedatutakoa: Arabako Lurralde Historikoko tokiko erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Araua, Sektore publikoko kontratuei buruzko Legearen testu bateratua onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua eta Tokiko araubidearen oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

Udalbatzak, aho batez, honako **ERABAKI** hau hartu du:

**Lehenengoa.-** Onestea ondoren zehaztutako kreditu gehigarriak:

<b>PARTIDA</b>	<b>IZENDAPENA</b>	<b>ZENBATEKOA (€)</b>
311.481.031	Diru- laguntzak AMUKATU, LANKIDETZA HITZARMENA	1.000 €.
241.421.009	ESKUALDEARI EGINDAKO TRANSFERENTZIA, EEP-REN EKINTZETARAKO	4.556,76 €
433.421.010	ESKUALDEARI EGINDAKO TRANSFERENTZIA, EKONOMIA ETA INDUSTRIA INDARBERRITZEKO PLANERAKO	1.803,54 €
920.226.040	NOTARIO- ETA ERREGISTRO-GASTUAK	3.000 €

GUZTIRA: 10.360,30

€

Zenbateko hori ondoren zerrendatzen diren baliabideekin finantzatuko da; beraz, espedientea orekatuta dago eta ez da defizitrik sortzen:

<b>DIRU-SARREREN PARTIDA</b>	<b><u>IZENDAPENA</u></b>	<b><u>ZENBATEKOA (€)</u></b>
87001	DIRUZAINZAREN SOBERAKINA GASTU OROKORRETARAKO	10.360,30 €

Onetsitako kreditu gehigarrien zenbateko osoa finantzatzeko erabiltzen diren diru-sarrerera guztien parekoa da.

**Bigarrena.-** Kontu-hartzaileak aldaketak egin ditzala aurrekontuaren gastu-egoeran, eta aldaketon eragina berehalakoa izan dadila.

**10.- Aldatzea, bidezkoa bada, Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren I. eranskina (kultura eta kirola), Amukatu Elkarteari eman beharreko 1.000 euroko diru-laguntza zuzena txertatzeko.**

Nerea andreak (BILDU) batzorde batean aipatu zuena errepikatu du: elkarteren batekin hitz egiten denean hitzarmen bat eratzeko edo edozein egoera konpontzeko, gustatuko litzaioke batzordeko kide guztiek aukera izatea elkarte horrek zer proposatzen duen entzuteko; hartara, erabakia hartzeko unean, kide guztiek entzunak izango dituzte proposamenak.

Ez da beste oharrik egin; beraz, gaia bozkatu dute. Hala, korporazioko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** 2016ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa 2016ko ekainaren 29ko osoko bilkuran onartu zela, Udaleko 2016ko aurrekontu orokorraren eranskin gisa.

**AINTZAT HARTU DA.-** Aipatu Planaren I. eranskinean, diruz lagunduko den kultura eta kirol arloko jarduerari dagokionez, ez zela diru-laguntza izendunik ageri Amukatu Elkarteari izenean, elkarte horrek udalerrian dauden kaleko katuen koloniek zirikusia duten ekintzak gauzateko.

**AINTZAT HARTU DA.-** Udalbatzak Amukatu Elkarteari diru-laguntza eman nahi diola aipatu jarduerak antolatzen laguntzeko, eta Udalak ematen dituen diru-laguntza guztiak Diru-laguntzen Plan Estrategikoan jasota egon behar dutela.

Udalbatzak, 2016ko irailaren 22an egindako osoko bilkuran, aho batez hau **ERABAKI DU:**

**LEHENENGOA.-** Aldatzea Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren I. eranskina (“kultura eta kirola arloko diru-laguntza jarduerak”); hala, seigarren puntuan honako hau gehitu da: “AMUTU ELKARTEARENtzako diru-laguntza, kaleko katuek harrapatzeko, esterilizatzeko eta askatzeko lanak finantzatzeko, baita katuen kolonien baldintza higieniko eta sanitarioak hobetzeko eta koloniak egokitzeko lanak egiteko ere.

Helburu hori babesteko, Udalak, hitzarmen bidez, urtero diru-laguntza bat ematen dio elkarteari, 1.000 eurokoa, hain zuzen ere. Diru-laguntza horren xedea da elkarte horrek aipatu lanak gauzatzeko ordaindu behar dituen gastuak arintzea.

**BIGARRENA.-** Diru-laguntza guztiak laburbiltzen dituen taulan, 6. erregistroa gehitu da: “Diru-laguntza AMUKATU elkarteari: lankidetzak-hitzarmena AMUKATU elkarteari; laguntzaren zenbatekoa 1.000 eurokoa da, eta 34.481.031 partidaren kargura egingo da”.

**11.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Amukatu Elkarteari arteko lankidetzak-hitzarmena, katuek harrapatzeko, esterilizatzeko eta askatzeko lanak, bai eta katuen koloniak eta bizilekuak garbitzeko eta egokitzeko lanak ere, finantzatzeko.**

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** Aiarako Udalak babestu egin nahi duela Amukatu Elkarteak gauzatzen duen jarduera soziala; elkartearen xedea, hain zuzen ere, Aiara udalerriko katuen koloniak kontrolatzea eta horien egoera hobetzea da.

**IKUSI DA.-** Aipatu elkarteak harreman zuzena duela Laudioko eta Urduñako albaitaritzazentzuekin katuen koloniak kudeatzeko proiektuan, batez ere esterilizazio-lanei eta higiene zein saneamenduari loturiko jarduerari dagokienez.

**IKUSI DA.-** Aiarako Udala eta Amukatu Elkartearen lankidetzan aritzeko hitzarmena, 2016 ekitaldirako.

**IKUSI DA.-** Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeak 2016ko irailaren 13an igorritako aldeko irizpena.

**AINZAT HARTU DA.-** Hitzarmen horrek arautu egiten duela Aiarako Udalak Amukatu Elkartearen alde zuzenean emandako diru-laguntza, eta 2016ko udal-aurrekontuan kreditu nahikoa eta egokia duen partida nominatiboa dagoela, Udalari hitzarmena sinatzeak dakarkion gastua bere gain hartzeko.

Udalbatza Osoak aho batez hau **ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.-** Onestea Aiarako Udalaren eta Amukatu Elkartearen arteko lankidetzahitzarmena, 2016 ekitaldirako, Aiara udalerrian bizi diren katuen kolonien baldintza higieniko eta sanitarioak kontrolatzeko eta hobetzeko lanak sustatzeko.

**Bigarrena.-** Alkate-udalburuari ahalmena ematea, hitzarmena sina dezan.

**Hirugarrena.-** Hitzarmena sinatu ondoren, **Amukatu Elkarteari** jakinaraztea, hitzarmenaren bi kopia erantsita, aletako bat sinatu ondoren Udalari itzultzeko.

**12.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako Gurasoen Elkartearen arteko lankidetzahitzarmena, Etxaurren ikastolako laguntza psikopedagogikoko zerbitzua eta bi urtekoen gelaren zerbitzua (laguntzailea) 2016 ekitaldian finantzatzekoa.**

Iraida andreak (AB) adierazi du bi partidak bakar batean elkartzea proposatu dela; hori dela eta, eskatu du hurrengo ekitaldietarako hori aldatu dadila aurrekontuetan.

Idazkariak gehitu du diruz lagundu behar diren zenbatekoetan aldaketa batzuk egon direla. Esan du zenbateko osoa ez dela aldatu, aurrekontuetako bi partiden baturaren gehienezko zenbatekoa baita.

Nerea andreak (BILDU) gehitu du ez dituztela datu horiek aurrez eduki; hori dela eta, hitzarmena onetsiko dute, baina baiezko boto horrekin ulertzen da aipatu datuak hitzarmenean agertuko direla.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** Udalak IGeri laguntza eman nahi diola bere gizarte-hezkuntzako jarduerarako, Etxaurren ikastolan egiten den hezkuntza-lana osatu, hobetu eta zabaltze aldera.

**IKUSI DA.-** IGEren zeregin nagusietako bat dela laguntza psikopedagogikoko zerbitzua eta bi urtekoen gelaren zerbitzua bermatzea.

**IKUSI DA.-** Aiarako Udalaren eta Etxaurreko Ikastolako Guraso Elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena, 2016 ekitaldiari dagokiona.

**IKUSI DA.-** Euskara eta Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeak 2016ko irailaren 13an igorritako aldeko irizpena.

**AINTZAT HARTU DA.-** Hitzarmen honek Aiarako Udalak Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarteari zuzenean emandako diru-laguntza bat araupetzen duela. Bestalde, udal-aurrekontuan bi partida izendun daude, kreditu nahikoarekin eta egokiarekin, hitzarmen hau sinatzeak Udalari dakarkion gastuari aurre egiteko.

Udalbatza Osoak aho batez hau **ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.-** Onestea Aiarako Udalaren eta Etxaurren Ikastolako Gurasoen Elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena (2016 ekitaldia), gizarte-hezkuntzako lana bultzatzeko, laguntza psikopedagogikoko zerbitzua eta bi urtekoen gelaren zerbitzua (laguntzailea) bermatuz.

**Bigarrena.-** Alkate-udalburuari ahalmena ematea, hitzarmena sina dezan.

**Hirugarrena.-** Hitzarmena sinatu ondoren, **Etxaurren Ikastolako Guraso Elkarteari** jakinaraztea, hitzarmenaren bi kopia erantsita, aleetako bat sinatu ondoren Udalari itzultzeko.

**13.- Behin betiko onestea, hala badagokio, 2015eko Kontu Orokorra.**

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketak egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** Ogasuna eta Kontuen Batzorde Bereziak 2016ko uztailearen 12an eman zuten 2015eko Kontu Orokorraren aldeko irizpena, eta jendaurrean ikusgai egon zen; zehazki, 2016ko uztailearen 27ko 84 zenbakiko ALHAOn argitaratu zen horri zegokion iragarkia.

Jendaurrean ikusgai egoteko epea igaro da eta ez da erreklamaziorik aurkeztu; beraz, Udalbatzak honako hau **ERABAKI DU**, aho batez:

**Lehena.-** Onestea Entitate honen aipatutako Kontu Orokorra, 2015 urteko ekitaldiari dagokiona.

**Bigarrena.-** Berrestea Ondasunen Inbentarioa, Tokiko Erakundeen Ondasunen Araudiko 31. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

**14º.- Alkatetza Dekretu hauen berri ematea:**

- **Erref.-260/16- J.O.P.- J.L.A.I.** 2016ko Ibilgailuen gaineko Udaleko Zerga dela eta ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, turismoari behin betiko baja emateagatik.

- **Erref.-261/16.-JR.C.S.** 2016ko Ibilgailuen gaineko Udaleko Zerga dela eta ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, turismoari behin betiko baja emateagatik.

- **Erref.-262/16.-P.S.A.** 2016ko Ibilgailuen gaineko Udaleko Zerga dela eta ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, turismoari behin betiko baja emateagatik.

- **Erref.- 263/16.-JA.G.G.** 2016ko Ibilgailuen gaineko Udaleko Zerga dela eta ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, turismoari behin betiko baja emateagatik.

- **Erref.-264/16.- JL.S.B.** 2016ko Ibilgailuen gaineko Udaleko Zerga dela eta ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, turismoari behin betiko baja emateagatik.

- **Erref.- 265/16.-O.M.O.** 2016ko Ibilgailuen gaineko Udaleko Zerga dela eta ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, turismoari behin betiko baja emateagatik.

- **Erref.-266/16.- J.M.Q.** 2016ko Ibilgailuen gaineko Udaleko Zerga dela eta ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, turismoari behin betiko baja emateagatik.

- **Erref. 267/16.-** Eraikin publikoak garbitzeko zerbitzuaren kontratua esleitzea.

- **Erref.- 268/16.- M.B.A. eta V.G.-** Espedientea abiaraztea Olabazarreko etxebizitza aurri egoeran dagoela aitortzeko, etxebizitza erabilera izatetik nekazaritza-abeltzaintza erabilera izatera igaro dadin.

- **Erref.-269/16.- MC.I.P.** Ibilgailuen gaineko udal zergaren salbuespena ematea, minusbaliotasun maila bat egiaztatzeagatik.

- **Erref.-270/16.- A.C.M.** Hobaria ematea Ibilgailuen gaineko Udal Zergan, familia ugariko titulua aurkezteagatik.

- **Erref.-271/16.- IM.M.C.** 2016ko Ibilgailuen gaineko Udaleko Zerga dela eta ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, turismoari behin betiko baja emateagatik.

- **Erref.- 272/16.-** Los Arcos de Quejana baserriaren Plan Berezia hasiera batean onestea.

- **Erref.- 273/16.-** Alkatearen eskuduntzak eskuordetzeari buruzko dekretua, 2016.

- **Erref.- 274/16.-Parques Industriales Gran Europa SA.** Ez zegokionean kobratutako zenbatekoa itzultzea, hain zuzen ere 2015eko Hirigintzari dagokion OHZren ordainagiriarena.

- **Erref.: 275/16.-** - Bermea eskatzea, Arespalditzan abeltzaintza-nabe bat eraikitzeke eta eraisteko obren hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzeko.

- **Erref.- 276/16.- T.S.D.R.-** Hirigintza-ordenaren espedientea leheneratzea erabaki da, indarrean dagoen planeamenduak onartutako gehieneko altuera gainditzen duen landaresi batekin egindako itxitura duelako.

- **Erref.- 277/16.- A.U.Z.-** Lehenengoz okupatzeko lizentziaren eta jarduera gauzatzeko onarpenaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatzea.

- **Erref.- 278/16.-** Arte-, kultura- eta kirol-ikastaroen eta tailerren pleguak onestea.

- **Erref.- 279/16.- I.F.R.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Arespalditzan dagoen partzela batean zaldiketarako zaldiak hazteko abeltzaintza-nabe bat eraikitzeke.

- **Erref.- 280/16.- I.F.R.-** Arespalditzan dagoen partzela batean zaldiketarako zaldiak hazteko jarduera sailkatuaren aurretiko jakinarazpena.

- **Erref.- 281/16.- Menagarai-Beotegi Administrazio Batzordea.-** Bermea eskatzea Menagaraiko Jauregi auzora sartzeko bidean euste-horma eraikitzeke eta eraisteko obren hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzeko.



- **Erref.- 282/16.-** Bitarteko funtzionarioa izendatzea, funtzionarioa ordezkatzeko, oporretan dagoela eta.

- **Erref.- 283/16.- Alday Ongintzako Fundazioa.-** Bermea eskatzea, "Arespalditzako zaharretxearen ondoan dagoen eraitsitako eraikinaren fatxadaren aurrealdea zati batean eraisteko eta berriz eraikitzeko" obrek eragiten dituzten eraikuntza- eta eraiste-hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzeko.

- **Erref.- 284/16.- Alday Ongintzako Fundazioa.-** Udal-lizentzia eta obrei ekiteko baimena ematea, "Arespalditzako zaharretxearen ondoan dagoen eraitsitako eraikinaren fatxadaren aurrealdea zati batean eraisteko eta berriz eraikitzeko".

- **Erref.- 285/16.- J.M.S.I.-** Dokumentu gehiago aurkezteko eskatzea, Tuba de Llanteno Plan Berezia onesteko administrazio-espeditentari buruz.

- **Erref.- 286/16.- Bolatoki Luiaondo Elkarte.-** 2015eko diru-laguntza justifikatzeko agiriak eskatzea.

- **Erref.- 287/16.- Gure Andere Emakume Elkarte.-** 2015eko diru-laguntza justifikatzeko agiriak eskatzea.

- **Erref.- 288/16.- Aiarako Saraube Hockey Club Elkarte.-** 2015eko diru-laguntza justifikatzeko agiriak eskatzea.

- **Erref.- 289/16.- Mar Arquitectos.-** Laguntza juridiko eta teknikoaren zerbitzua esleitzea, Luaiondoko Barrena kaleko jabekideekin hirigintza-hitzarmen bat gauzatzeko.

- **Erref.- 290/16.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzordea.-** Obrak egiteko udal-lizentzia ematea, Menagaraiko Jauregi auzora sartzeko bidean euste-horma eraikitzeko.

- **Erref.- 291/16.- Onestea F/2016/8 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**

- **Erref.- 292/16.- S.U.Z.-** Onestea obrak egiteko lizentziari uko egin izana, hain zuzen ere "Retes de Llanteno udalerriko Campuiza auzoko 21 zenbakian dagoen partzela ixteko" obrei dagokien lizentzia.

- **Erref.- 293/16.- Zorroza Gestión SL.-** Industria-nabearen atzeko aldean pilatutako hondakinak kentzeko eskatzea.

- **Erref.- 294/16.- Luxaondo Fútbol Club Elkarte.-** 2015eko diru-laguntza justifikatzeko agiriak eskatzea.

- **Erref.- 295/16.- Etxaurren ikastola konpontzeko eta aldatzeko obrak egiteko kontratua esleitzea.**

- **Erref.-296/16.- A.U.F.** 2016ko Ibilgailuen gaineko Udaleko Zerga dela eta ordaindutako zenbateko bueltatzeko emakida, 2015ean turismoari behin betiko baja emateagatik.

- **Erref.- 297/16.-I.A.S.** 2016ko Ibilgailuen gaineko Udaleko Zerga dela eta ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, turismoari behin betiko baja emateagatik.

- **Erref.-298/16.-B.DLT.G.** 2016ko Ibilgailuen gaineko Udaleko Zerga dela eta ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, turismoari behin betiko baja emateagatik.

- **Erref.-299/16.-D.M.L.** 2016ko Ibilgailuen gaineko Udaleko Zerga dela eta ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, turismoari behin betiko baja emateagatik.

- **Erref.-300/16.-Cons. I.** 2016ko Ibilgailuen gaineko Udaleko Zerga dela eta ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, turismoari behin betiko baja emateagatik.

- **Erref.- 301/16.- Pilota Kluba.-** 2015eko diru-laguntza itzultzeko prozedura abiarazteko dekretua.

- **Erref. - 302/16 Aiarako Ehiza eta Arrantza Elkarte.-** 2015eko diru-laguntza itzultzeko prozedura abiarazteko dekretua.

- **Erref. - 303/16 Santiago Apóstol Erretiratuen eta Pentsiodunen Kluba.-** 2015eko diru-laguntza itzultzeko prozedura abiarazteko dekretua.
- **Erref. - 304/16 Ama Birginia Zuria Emakumeen Kluba.-** 2015eko diru-laguntza itzultzeko prozedura abiarazteko dekretua.
- **Erref. - 305/16 Aiarako Biltokia Kultur Elkarte.-** 2015eko diru-laguntza itzultzeko prozedura abiarazteko dekretua.
- **Erref. -306/16.- Onestea 2016ko 2. hiruhilekoko Uraren eta Estolderiaren Tasaren Errolda.**
- **Erref.- 307/16- Artziniegako idazkariaren eskaera, lana metatu dela eta.**
- **Erref.- 308/16 .- Viesgo Energia SL.-** Lurzorua okupatzeagatiko tasa likidatzea (2016ko 2. hiruhilekoa), kontzeptua: argindarra eta gasa.
- **Erref.- 309/16.- Aiarako Txirringuluri Elkarte.-** 2016ko diru-laguntzaren emakida, % 90 ordaintzeko agindua.
- **Erref.- 310/16.- Amukatu Elkarte.-** 2016ko diru-laguntzaren emakida, % 90 ordaintzeko agindua.
- **Erref.- 311/16.- Menagaraiko Emakume Taldea.-** 2016ko diru-laguntzaren emakida, % 90 ordaintzeko agindua.
- **Erref.- 312/16.- Aiara Bolatoki Elkarte.-** 2016ko diru-laguntzaren emakida, % 90 ordaintzeko agindua.
- **Erref.- 313/16.- Eskutxiko Ahotsak.-** 2016ko diru-laguntzaren emakida, % 90 ordaintzeko agindua.
- **Erref.- 314/16.- Etxaurren Ikastolako IGE.-** 2016ko diru-laguntzaren emakida, % 90 ordaintzeko agindua.
- **Erref.- 315/16.- Garobel Mendi Taldea.-** 2016ko diru-laguntzaren emakida, % 90 ordaintzeko agindua.
- **Erref.- 316/16.- Izalde Abesbatza.-** 2016ko diru-laguntzaren emakida, % 90 ordaintzeko agindua.
- **Erref.- 317/16.- Ibaizabal Gaztetxea.-** 2016ko diru-laguntzaren emakida, % 90 ordaintzeko agindua.
- **Erref.- 318/16.- Murgako Administrazio Batzordea.-** 2016ko diru-laguntzaren emakida, % 90 ordaintzeko agindua.
- **Erref.- 319/16.- Llanteno Haraneko Arte Eskola.-** 2016ko diru-laguntzaren emakida, % 90 ordaintzeko agindua, ken dagoeneko ordaindutakoa.
- **Erref.- 320/16.- Belako Lanak SL.-** Udalerriko bideen eta errepideetarako lotuneen garbiketa mekanikoa egiteko sinatutako kontratua betetzeko agintzea.
- **Erref.- 321/16.- F.C.M.-** Udal Erroldan ofizioz baja emateko espedientea.
- **Erref.- 322/16.- Alday Fundazioa.-** Hondakinen kudeaketagatiko bermea eskatzea, Arespalditzan zaharretxe berria eraikitzeke obren lizentzia emateko (lehenengo fasea).
- **Erref.- 323/16.- Alday Fundazioa.-** Arespalditzan zaharretxe berria eraikitzeke obren lizentzia ematea (lehenengo fasea).
- **Erref.- 324/16.- G.O.U.-** Udal-lizentzia ematea, Arespalditzan dagoen etxebizitzako bainugela eta sukaldea egokitzeko obrak egiteko.
- **Erref.: 325/16.- S.C.C.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Sojon dagoen etxebizitza bateko estalkia konpontzeko.
- **Erref.: 326/16.- M.I.C.H.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Erbin dagoen etxebizitza bateko estalkia konpontzeko.
- **Erref.- 327/16.- M.B.G.-** Udal-lizentzia ematea, Menagarain dagoen etxebizitzako sukaldea egokitzeko obrak egiteko.

- **Erref.- 328/16. Autoescuela Salazar Aldaiturriaga, SC.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, autoeskolak Luiaondo udalerrian duen praktikak egiteko pistan hormigoizko zintarri bat jartzeko.

- **Erref.- 329/16.- Esclavas del Amor Misericordioso.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Menagaraiko eraikinaren fatxada margotzeko.

- **Erref.- 330/16.- Arespalditzako A. Batzordea.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Arespalditzako bidearen harrizko horman horma-txapela jartzeko.

- **Erref.- 331/16.- M.C.A.C.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Sojon dagoen etxebizitza bateko estalkia konpontzeko.

- **Erref.- 332/16.- M.I.H.M.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Luiaondon dagoen eraikin bateko erretenak eta zorrotenak ordezkatzeko.

- **Erref.- 333/16.- R.A.C.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Izorian dagoen lursail batean hormigoizko horma eraikitzeko.

- **Erref.- 334/16.- M.T.M.B.-** Agiri gehiago aurkez ditzala eskatzea, Llantenon dagoen etxebizitza bateko estalkia konpontzeko obrarako udal-lizentziari dagokion espedienterako.

- **Erref.- 335/16.- A.J.E.B.-** Obrarako lizentzia luzatzea, Llantenoko etxola baten estalkia zaharberitzeko.

- **Erref.- 336/16.- Arespalditzako Administrazio Batzordea.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Arespalditzako azoka-gunearen alde batean espaloia jartzeko.

- **Erref.- 337/16.-** 2015-2016 ikasturtean musika eta dantza jardueretan parte hartzeak eragindako gastuak finantzatzeko diru-laguntzaren deialdia onestea.

- **Erref.- 338/16.-** EAEko beste udalerrri batzuetako kiroldegietara joateak eragindako gastuak finantzatzeko diru-laguntzak ematea.

- **Erref.- 339/16.- N.O. eta M<sup>a</sup> J. O.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Luiaondon dauden lursailak banatzeko itxitura egiteko.

- **Erref.- 340/13.- Luiaondoko Administrazio Batzordea.-** 2015eko gasolio eta argiteria publikoko gastua finantzatzeko diru-laguntza ematea.

- **Erref.- 341/13.- Aiarako Administrazio Batzordea.-** 2015eko argiteria publikoko gastua finantzatzeko diru-laguntza ematea.

- **Erref.- 342/16.- M.A.P.-** Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia ematea.

- **Erref.- 343/16.- HC-Naturgas Comercializadora Último Recurso SA.-** Tasa likidatzea lurzorua 2015ean okupatzeagatik, elektrizitate eta gasaren kontzeptuan.

- **Erref.- 344/16.- Murgako Administrazio Batzordea.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Murgako Ugarte bidea zolatzeko.

- **Erref.- 345/16.- Aiarako Ehiza eta Arrantza Elkarte.-** 2015ean justifikatu gabeko diru-laguntzaren zenbatekoa itzultzeko eskatzea.

- **Erref.- 346/16.- Aiarako Biltokia Kultur Elkarte.-** 2015ean justifikatu gabeko diru-laguntzaren zenbatekoa itzultzeko eskatzea.

- **Erref.- 347/16.- J. M. S. Q.-** Lehenengoz okupatzeko lizentzia-ematea Sojo udalerrian eraikitako familia bakarrarentzako etxebizitzari.

- **Erref.- 348/16.- Onestea F/2016/8 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**

- **Erref.- 349/16.- Kreditu-gaikuntzari buruzko 2/2016 espedientea.**

- **Erref.- 350/16.- Autocares Sobrón.-** 2016-2017 ikasturtean Etxaurren Ikastolako garraio-zerbitzua eskaintzeko baimena ematea.

- **Erref.- 351/16.- Ama Birjina Zuria Emakumeen Elkarte.-** 2015ean justifikatu gabeko diru-laguntzaren zenbatekoa itzultzeko eskatzea.

- **Erref.- 352/16.- Santiago Apóstol Erretiratuen eta Pentsiodunen Kluba.-** 2015ean justifikatu gabeko diru-laguntzaren zenbatekoa itzultzeko eskatzea.

- **Erref.- 353/16.- Luaiondo Pilota Kluba.-** -2015ean justifikatu gabeko diru-laguntzaren zenbatekoa itzultzeko eskatzea.

- **Erref.- 354/16.- Naturgas Energía Distribución SA.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Luaiondoko Oloste kalea 2 helbidean dauden bi zulo konpontzeko.

- **Erref.- 355/16.- D.A. eta A.M.S.-** Bermea eskatzea, Llantenon dagoen etxebizitza baten estalkia zaharberitzeko obrek eragindako eraikuntza- eta eraiste-hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzeko.

- **Erref.- 356/16.- M.B.A. eta V.G.-** Espedientea ebaztea, Olabazarreko etxebizitza aurri egoeran dagoela aitortzeko, eta etxebizitza erabilera izatetik nekazaritza-abeltzaintza erabilera izatera igaro dadin baimentzea.

- **Erref.- 357/16.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzordea.-** “Menagarai-Beotegiko sakabanatutako baserrietara argiteria publikoaren sarea helarazteko” obrek eragindako eraikuntza-hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzeko jarritako bermea itzultzea.

- **Erref.- 358/16.- Autocares de Zalla SL.-** 2016-2017 ikasturtean zehar eskolarako garraio erregularra baimentzea.

- **Erref.- 359/16.- G.E.A.** funtzionarioari eszedentzia ematea, hiru urtetik beherako alabak zaintzeko.

- **Erref.- 360/16.- Retes de Llantenoko Administrazio Batzordea.-** 2015eko argiteria publikoaren gastua finantzatzeko diru-laguntza ematea.

- **Erref.- 361/16.- Luaiondoko Administrazio Batzordea.-** Diru-laguntza ematea, Luaiondoko frontoian metalezko egitura sendotzeko obren amaierako ordainsarietiek eragindako gastuak ordaintzeko.

- **Erref.- 362/16.- Agiñagako Administrazio Batzordea.-** Diru-laguntza ematea, elizaren ingurua, bideak eta sareak hobetzeko obren zuzendariaren ordainsarietiek eragindako gastuak ordaintzeko.

- **Erref.- 363/16.- Añesko Administrazio Batzordea.-** Diru-laguntza ematea, Añesko uraren banaketa-sarea hobetzeko obren zuzendariaren ordainsarietiek eragindako gastuak ordaintzeko.

- **Erref.- 364/16.- Olabazarreko Administrazio Batzordea.-** Diru-laguntza ematea, elizaren ingurua, bideak eta sareak hobetzeko obren proiektua idazteagatiko ordainsarietiek eragindako gastuak ordaintzeko.

- **Erref.- 365/16.- L.U.P.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, “Oleta Jatetxea SL taberna eta jatetxean sukaldearen kokapena aldatzeko”.

- **Erref.- 366/16.- Murgako Administrazio Batzordea.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Murgako hilerriko kaperaren barnealdea konpontzeko.

- **Erref.- 367/16.- L.U.P.-** Sailkatutako jardueraren aurretiko jakinarazpena egitea, "Oleta jatetxean sukaldearen kokapena tokiz aldatzeak eragindako jarduera-aldaketa dela eta”.

- **Erref.- 368/16.- Dorreko Pilota Kluba.-** 2016eko diru-laguntza ematea, eta % 90 ordaintzeko agintzea.

- **Erref.- 369/16.- Gure Andere Emakumeen Elkartea.-** 2016eko diru-laguntza ematea, eta % 90 ordaintzeko agintzea.

- **Erref.- 370/16.- Administrazio Batzordeak.-** 2016ko jaietarako diru-laguntza. % 100 ordaintzea.

- **Erref.- 371/16.- A.J.E.B.-** Agiri gehiago aurkezteko eskatzea, “Etxolan baserriko lanabesak gortzeko jarduera legezatzeko” espedientea osatzeko.

- **Erref.- 372/16.- Añesko Administrazio Batzordea.-** “Añesko ur edangarriaren banaketa-sarea hobetzeko obrak. 1. Fasea, Añes udalerrian” izenekoak eragindako eraikuntza- eta eraiste-hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzeko jarri zen bermea itzultzea.

- **Erref.- 373/16.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzordea.-** Diru-laguntza ematea, Menagarai-Beotegiko baserrietako argiteria publikoko lanak zuzentzeari dagokion ordainsariak eragindako gastuak finantzatzeko.

- **Erref.- 374/16.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzordea.-** “Menagarai-Beotegiko sakabanatutako baserrietan hondakin-uren zati bateko saneamendurako eta argiteria publikoko lanak egiteko” obrek eragindako eraikuntza-hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzeko jarritako bermea itzultzea.

- **Erref.- 375/16.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzordea.** Agiri gehiago eskatzea, "Menagarai udalerriko 6 zenbakiko poligonoko 680. partzelan EDAR bat jartzeko" jarduerari dagokion espedientea osatzeko.

- **Erref.- 375/16.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzordea.** Agiri gehiago eskatzea, "Ibaguen barrutiko 2 zenbakiko poligonoko 592. partzelan EDAR bat jartzeko" jarduerari dagokion espedientea osatzeko.

- **Erref.- 377/16.- Ibe Promo SL.-** Agiri gehiago eskatzea, lehenengoz okupatzeko lizentziari dagokion espedientea osatzeko.

- **Erref.- 378/16.- Luiaondoko Administrazio Batzordea.-** Bermea eskatzea, “Luiaondoko Estartako kaleko urbanizazio- eta azpiegitura-lanek” eragindako eraikuntza-hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzeko.

- **Erref.- 379/16.- Luiaondoko Administrazio Batzordea.-** Bermea eskatzea, “Luiaondoko Torre kaleko urbanizazio- eta azpiegitura-lanek” eragindako eraikuntza-hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatzeko.

- **Erref.- 380/16.- D.A.S. eta AM.S.I.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Llanteno udalerrian dagoen eraikinaren estalkia zaharberritzeko.

Udalbatzako kideak alkatetza-dekretu horien jakitun dira.

- **Aztergaien zerrendako hurrengo puntuari ekin aurretik, Alkate jaunak aztergaien zerrendatik kanpoko puntu hau eztabaidatzea proposatu du, premia delako: Udalbatzak alkateari eskumena ematea Luiaondoko erabilera anitzeko eraikinaren obra berria eta banaketa horizontalaren emakida emateko.**

Lehenengo eta behin premia bozkatu behar da, puntu hori Eguneko Aztergaien Zerrendan sartzeko. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela eta, honako puntu hau gehitu da:

**15.- Udaleko alkate jaunari eskumena ematea Luiaondoko erabilera anitzeko eraikinaren obra berri eta banaketa horizontalaren eskritura emateko.**

Idazkariak adierazi du proposamen horrek barne hartzen duela beheko solairuaren, eraikinaren gainerako solairuen eta partzelan dauden bi ukiulu edo eraikinen banaketa horizontala, eskrituraren zirriborroan ageri den moduan.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

**IKUSI DA.-** Aiarako Udalak Luiaondo udalerriko Torre kalea 17 helbidean dagoen eraikina zaharberritzeko obrak egin dituela, erabilera anitzeko zentro bilakatzeko.

**AINTZAT HARTU DA.-** Eraikinaren beheko solairua Luiaondoko mediku-kontsultategi berria hartzeko egokitu dela, eta Udalaren asmoa dela Eusko Jaurlaritzaren esku uztea, toki horretan orain arteko mediku-zerbitzua eskaintzen jarrai dezaten.

**AINTZAT HARTU DA.-** Amurrioko notarioari beharrezko informazio guztia igorri zaiola, obra berriaren eta banaketa horizontalaren eskritura formalizatu dezan, mediku-kontsultategia hartuko duen eraikinaren zatia Eusko Jaurlaritzaren esku utzi ahal izateko.

Korporazio honek, aho batez, hau **EBATZI DU**:

**Lehenengoa.-** Aiarako alkate Gentza Alamillo Udaeta jaunari baimena ematea notarioaren aurrean formalizatu dezan Luiaondo udalerriko Torre kalea 17 helbidean dagoen obra berriaren eskritura eta helbide horren beraren banaketa horizontala; horren bitartez, modu independentean aprobetxatu ahalko diren elementu hauek eratuko dira:

1. Beheko solairuko lokala, mediku-kontsultategia jartzeko.
2. Gainerako lokalak, erabilera anitzetarako (beheko solairua, lehen solairua eta teilatu azpikoa).
3. Ukuilua, ertza, lastategia, aurrealdea Torre kalean duena.
4. Ukuilua, ertza, lastategia, finkaren hondoko mugaren ondoan dagoena.

**Bigarrena.-** Amurrioko notarioari igortzea erabaki honen agiria, jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

#### **16.- Eskaerak eta galderak.**

- Iraida andreak (AB) esan du aurrekontuan partida bat onetsi zela energiari buruzko kontu-ikuskatze bat egiteko. Dagoeneko irailean gaude, eta harrigarria da oraindik egin ez izana.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio hiru enpresari eskatu dietela eskaintzak aurkezteko, eta Mugarriri diru-laguntza eskatu diotela. Horrez gain, EEERI diru-laguntza eskatzea ere aztertzen ari dira.

- Nerea andreak (BILDU) aipatu du arazo bat egon zela garbiketako langileekin, Villar enpresako ordezkari batekin eta talde politikoetako ordezkariekin egin zen bileran. Bilduko hiru ordezkari bertaratu ziren bilerara eta formei dagokienez oso egokia ez zen jarrera batekin egin zuten topo; hori dela eta, azkenean, Bilduko zinegotzi batek bileratik alde egin behar izan zuen. Hori ikusirik, Nerea andreak jakin nahi izan du zergatik ezin diren bilera batera talde politiko bareko hiru ordezkari joan. Alkate jaunak azaldu du kasu honetan talde bakoitzaren ordezkariak errespetatzeko izan zela.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) gehitu du zegokion azalpena egun horretan bertan igorri zitzaiela Bilduko ordezkariari. Dena den, gehitu du bilera hori deitu zuen batzordean, Hirigintza, Obrak, Zerbitzuak eta Ingurumena Batzordean, hain zuzen ere, kide guztiek aurretik adostu zutela bilera horretara batzorde horretako zinegotziak baino ez zirela joango, eta une hartan Bilduko kideek ez zuten ezer esan. Gaia une horretan eztabaidatu izan balitz, beste erabaki bat har zitekeen, esate baterako, bilerara zinegotzi guztiak bertaratzea; kasu horretan, EAJ-PNVko ordezkari gehiago joango ziren bilerara.

Nerea andreak esan du bilera deitzeko egin zen batzorde horretan bera eta Esteban jauna egon zirela; alabaina, gero, taldeko gainerako kideekin hitz

egitean, interesgarria iruditu zitzaien Lauren jauna ere bileran egotea, eta ez dute ulertzen zergatik jartzen zaizkien mugak zinegotziei bileretara joateko.

Gentza jaunak adierazi du hausnarketa hori bilera deitzeko egin zen batzordean egin beharrekoa dela; hala egin izan balute, gaia eztabaidatu zezaketen eta, ziurrenik, beste erabaki bat hartuko zuket.

Nerea andreak esan du ez zutela hausnarketa hori egin ez zutelako uste bilera batera joan daitekeen zinegotzi kopuruari mugarik jarriko ziotenik; izan ere, haien ustez, zinegotzi guztiek dute bileretara joateko eta haien iritzia emateko eskubidea.

Iñigo jaunak (EAJ-PNV) aipatu du batzordean bertan guztiek adostu zutela batzordeko ordezkariak joatea bilerara, bertaratutakoen kopurua handiegia izan ez zedin eta taldeen ordezkari-tza-politikoaren proportzionaltasuna mantentzeko, bilera oilategi ez bihurtzeko.

Esteban jaunak (BILDU) esan du batzordeko ordezkariak hitza eta botoa zutela bilera horretan, hala adostu zelako; alabaina, ez du ulertzen zergatik ez zitzaizkien gainerako zinegotziei bertaratzeko aukera eman, boto eskubiderik gabe.

Josu jaunak (BILDU) esan du bera ez zela bileran egon, baina gauzak komentatzeko erabilitako formak eta tonua egokienak izan ez zirela jakinarazi diotela, orain hemen esan den moduan.

Susana andreak (EAJ-PNV) gehitu du foro sozio-sanitarioaren bileretara zinegotzi guztiak daudela gonbidatuta, eta esan du asko poztuko litzatekeela guztiek parte hartuko balute eta bileretara joango balira.

Josu jaunak esan du badakitela, eta gustura joango direla bileretara, beste betebeharrak batzuek hori egitea oztopatzen ez badute.

Eta jorrazteko beste gairik ez dagoenez, alkate-udalburuak amaitutzat eman zuen bilkura, hemeretziak eta berrogeita bost minutu direnean, eta jorrazteko eta hartutako erabakiak jasota geratzeko, nik, idazkari gisa, fede eman dut, Arespalditzan, bi mila eta hamaseiko irailaren hogeita biamar.

OE  
ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Izpta.: Gentza Alamillo Udaeta.

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos.